



TogaGune ikastaroa: Ikaskuntza- Zerbitzua errealitateak eraldatzeko metodologia gisa



Zer eta nola egin hezkuntzatik komunitatea saretzeko?
Egungo panoramika eta proiektuen diseinua.

Eka. 25 - Eka. 26 2024

Kod. G05-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 25 - Eka. 26 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Ikaskuntza-Zerbitzua (I+Z) indarra hartzen ari den eredua da gure hezkuntza sistemaren baitan. Horren adibide da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) finkatu beharreko hezkuntza-estrategiatzat jaso, onartu eta babesteko oinarriak ezartzen ari direla, "EHUagenda 2030" (EHU, 2019) eta Unibertsitateko Gizarte Erantzukizuna (Amiano, 2019; Jasangarritasun Batzordea) eraginkortasunez garatzeko konpromiso- eta ekintza-esparruaren barruan. Horretarako, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE-HELAZ) ardurapean I+Z Laborategi Iraunkorra (A-S i3 Lab) martxan jarri zen 2023ko azaroan, metodologia hau egituratu eta instituzionalizatzeko bidean.

I+Z ingurunearekin eta komunitatearekin lotura sendoagoak sortzeko proposamena da, balio zibiko eta sozialak garatzea ahalbidetzen duen planteamendu metodologikoa izanik. Oinarri pedagogiko sendoak ezartzen ditu, alde batetik, hezkuntza-kalitatea bermatzeko ikaskuntza esanguratsua sustatzen duelako eta giza-garapena eredu integral, parte-hartzaile eta sozial batetik begiratzen duelako, eta, bestetik, jasangarritasuna eta eraldaketarako bidean ardura kolektiboaz hausnartzeko bideak zabaltzen dituelako.

Hau guztia posible izan dadin, hezkuntza-proposamen berean ikaskuntza kurrikularra eta komunitatea hobetzeko zerbitzua bat egitea du helburu metodologia honek. Horrela, izenak adierazten duen gisa, zerbitzua eta parte-hartze aktiboa, gogoeta eta esperientziazko ikaskuntzak bermatzen dituen proiektuak garatzen ditu. Hala, komunitateari zerbitzu bat ematea bilatzen da, gizarte eraldatzeko herritar arduratsuak heziz eta aldi berean ikaskuntza esperientziala eta aktiboa bilatuz.

Uda Ikastaroak Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiara hurbilpen bat izan nahi du. Parte-hartzaileek, zenbait oinarri teoriko barneratu ostean, norberaren praktikari buruz hausnartzeko tartea izango dute eta hezkuntza-testuingurutik gertuko errealitateak hobetzeko erronkari erantzuteko plangintza posible bat zehazten hasiko dira. Hau da, Ikastaroan, parte-hartzaileak etorkizuneko irakaskuntza-ingurunearen benetako beharren gainean lan egiten trebatuko dira, arreta berezia jarritz hurbileko gizarte-arazo eta -premia errealean analisi kritikoan eta ulermenean, eta horiek modu sortzailean konpontzen.

Ikastaro hau TopaGune motatakoa izango da. Izen hau, partaidetza maila altuena eragiten duten ikastaroei ematen zaie. Kasu hauetan ikastaroen zuzendariak, UIKko zuzendaritza akademikoak eta ikastaroan erraztatzaile lanak egingo dituen pertsonak elkarrekin diseinatzen dituzte eraginkorrenak izango diren teknikak ikastaroa parte hartzailea izateko.

Helburuak

Giza justizia eta eraldaketarako bidean komunitatean parte-hartze aktiboak ezagutzea; norberaren eraldaketa abiapuntu izanik.

I+Z funtsezko ezaugarriak ezagutu eta ulertzea, estrategia metodologiko eta gizarte hobetzeko tresna gisa. I+Z metodologia aktibo gisa ulertzea.

I+Z hezkuntza-sistemak gizarte-erantzukizunarekin bat egiteko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei erantzuteko bide bezala aitortzea.

Hezkuntza-etapa ezberdinetan I-Z proiektuak planifikatzeko eta garatzeko aukerak identifikatzea.

Lankidetzak



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Programa

2024-06-25

08:45 - 09:00	Erregistroa
09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
	Ongi etorria
	Irati Leon Hernandez Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea Maitane Basasoro Ziganda Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea
09:15 - 09:30	“Talde dinamika eta garatu beharreko proiektuaren nondik norakoak”
	Maitane Basasoro Ziganda Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea Irati Leon Hernandez Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea Isabel Margarita Ugalde Salas Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
09:30 - 10:15	“Zergatik Ikaskuntza-Zerbitzua? Egungo egoera eta oinarriak”
	Ana Luisa López Vélez Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - A-S i3 Lab-en kidea Monike Gezuraga Amundarain Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - A-S i3 Lab-en koordinatzailea
10:15 - 11:00	“Zer da eta zertan datza Ikaskuntza-Zerbitzuak?”
	Esther Cruz Iglesias Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea Elena Lopez de Arana Prado Universidad Autónoma de Madrid UAM - Irakaslea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	Mahai ingurua: “Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako esperientziak I: Errealitateak eraldatuz: Unibertsitatea eta Komunitatea, hezkuntza Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako Gradu eta Master Amaierako Lanen bitartez humanizatzeko xedearekin lanean (CBL programa)”
	Nerea Permach Martin Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea Rakel Gamito Gomez Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Errealitateak eraldatuz CLB proiektuko koordinatzailea
12:15 - 13:00	Mahai ingurua: “Ikaskuntza-Zerbitzuko proiektu errealak: parte-hartzaileen begiradak gurutzatzen (II esperientzia)”
	Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako esperientziak II :Euskal Haur Literatura eta IKT-ak uztartzen dituen lantegi baten diseinua Gasteizko GEU Elkartarekin elkarlanean
	Haizea Galarraga Arrizabalaga Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea Arkaitz Salazar Maestu GEU Elkartea GEU elkarteko kidea
13:00 - 14:00	Proiektuaren hasiera: ideia zaparrada
14:00 - 14:15	Sintesia

2024-06-26

09:00 - 10:00 “Nola planifikatu Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako proiektu bat?”
Maria Teresa Vizcarra Morales | Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea
Ainhoa Gómez Pintado | Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea

10:00 - 11:30 Proiektua: Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako proiektu baten diseinua

11:30 - 12:00 Atsedena

12:00 - 13:30 Proiektua: Partekatzea eta taldeko gogoetak

13:30 - 14:00 Itxiera

Sintesia eta itxiera

Irati Leon Hernandez | Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea
Maitane Basasoro Ziganda | Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU - Irakaslea

Zuzendaritza



Irati Leon Hernandez

UPV/EHU

Hezkuntza Zientzietan doktorea, Psikodidaktikan masterra eta Haur Hezkuntzan graduatua. 2021an defendatu zuen bere doktoretza tesia, "Transfeminismotik ekarriak Haur Hezkuntzara: Esakola eta identitatearu buruzko kasu-azterketak neoliberalismogaraian" izenburupean. Egun irakasle atxikia da Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (UPV/EHU) eta bere ikerketa lanek 0-3a, aniztasuna eta pedagogia (trans)feministak dituzte ardatz eta izateko eta egiteko moduen ikerketak murgildua dago.



Maitane Basasoro Ziganda

UPV/EHU

Hezkuntza Zientzietan doktorea, Psikodidaktikan masterra eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan graduatua. 2022an defendatu zuen bere doktoretza tesia, "Ikasleen parte-hartzea eskola demokratikoak eraikitzeko giltzarri. Irakasleen begirada berritu batetik abiatutako Antzuola Herri Eskolako hezkuntza proiektua" izenburupean. Egun irakasle atxikia da Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (UPV/EHU) eta bere ikerketa lanek demokrazia eta justizia soziala hezkuntzan, ikasleen partaidetza, eta pedagogia kritikoa dute ardatz.

Irakasleak



Esther Cruz Iglesias


UPV/EHU

Doctora en Pedagogía por la UPV/EHU y Máster en Intervención de las Dificultades de aprendizaje por la Universidad de Valencia. Profesora Adjunta del Departamento de Didáctica y Organización Escolar donde ha impartido docencia en los grados de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Social, Pedagogía y Psicopedagogía. Además imparte docencia en el Máster universitario en Formación de Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanza de idiomas y en el Master de Investigación en Ámbitos Socioeducativos. Actualmente es vicedecana de Practicum y TFG de Facultad de Educación Filosofía y Antropología de la UPV/EHU (HEFA I). Ha colaborado con el Servicio de Asesoramiento Educativo de la UPV/EHU en el proyecto ehundu para impulsar la coordinación de equipos docentes y con el Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad en el proyecto Zeharsare de definición de las competencias transversales de la UPV/EHU. Ha participado en 12 project



GEU Elkarte

GEU Gasteiz Euskalduna irabazi asmorik gabeko elkarte da. 1992. urtean sortu zen Gasteizen euskararen erabilera sustatzeko eta euskaldun eta euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko asmoarekin. Gaur egun 800 bazkidetik gora ditu eta lan boluntarioa egiten duten pertsonen gain soldatapeko zortzi langile ditu. Batzar Orokorrean aukeratuak diren zortzi kidek osatutako Talde Dinamizatzaile bat arduratzen da elkartearen urteroko ibilbidea landu eta norabidea markatzeaz.



Haizea Galarraga Arrizabalaga

EHU/UPV

Haizea Galarraga irakasle-ikertzaile atxikia da UPV/EHUko Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Didaktika eta Eskola Antolakuntza (DEA) sailean. Unibertsitate mailako irakaskuntzan dihardu 2013tik. Formazioz, Lehen Hezkuntzako irakasle da eta alor ezberdinetan egin ditu graduondoko ikasketak: Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia, Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan, eta Haur

eta Gazte Literatura, besteak beste. Doktorea da Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan programaren baitan (2018, Mondragon Unibertsitatea). Egun, hezkuntzaren inguruko gaietan ikertzen du, IkHezi (Ikerketa Hezitzailea) ikertaldeko kide da, CIMIE hezkuntza kongresuko antolatzaile gisa dihardu eta Revista de Psicodidáctica aldizkariako editore taldeko kide ere bada.



Rakel Gamito Gomez

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Irakasle atxikia

Hezkuntza Zientzietan Doktorea, Psikodidaktikan Masterra eta Haur Hezkuntzan Graduatua. Tesiaren izenburua: Adin txikikoen Interneten erabilera-ohiturei eta arriskuei buruzko kasu azterketa bat. Pertzepzioetik kontzientzia piztera. Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslea, Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailean. Informazio eta Komunikazio Teknologia ikasgaia ematen ohi du eta IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan online graduondokoan parte hartzen du. IkHezi (Ikerketa Hezitzailea) (IT 1304-19) Eusko Jaurlaritzako talde kontsolidatuko ikertzailea. Lan-ildo nagusiak: hezkuntza-teknologia, gaitasun digitala, irakasleen prestakuntza, ikaskuntza-zerbitzua eta genero ikuspegia.



Monike Gezuraga Amundarain

UPV/EHU

Hezkuntzan doktorea (2014 - Sari berezia), Pedagogian lizentziaduna (2001) eta Hezkuntza Bereziko Masterra (2003) Deustuko Unibertsitatean. Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko irakasle agregatua. Irakaskuntza Gizarte Hezkuntzan ematen du. Txilen eta Argentinan hainbat ikerketa-trebakuntza egonaldi egin ditu. Gainera, hainbat berrikuntza proiektutan parte hartu du eta MINECOren I+G+B eta Erasmus + ikerkuntza-proiektu europarretan ere ikertzaile gisa parte hartu du. Horrez gain, Co-IP eta ikertzaile gisa egindako hainbat ikerketetan parte hartu du, Gizarte Hezkuntza gradua eta gizarte erakundearen arteko lankidetzan, titulazioaren Kontseilu/Behatokiaren bitartez. 2017tik KideON ikerketa talde kontsolidatuaren partaidea da. Ikerketa-ildo nagusien artean, zaugarritasun egoeran dauden pertsonen inklusioa, ikasketa - zerbitzua eta unibertsitate kritikoa daude. CNEAIk aitortutako ikerketa-seiurtekoa du. 2018tik 2022ra Bilboko Hezkuntza Fakultateko Praktika eta GrAlen dekanordea izan da. GORAKIDE bereizgarriarena, "adimen desgaitasun duten pertsonetako konpromisoagatik", ZERBIKAS Fundazioaren partaidea eta Bizkaiko URTXINTXA eskolaren kolaboratzailea.



Ainhoa Gómez Pintado

Arte Ederretan doktorea da UPV/EHU, eta aparteko saria jaso du. Arte eta Ikusizko Kulturako irakaslea da Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Hezkuntza Sailean, eta Arte Ederren Fakultateko Ikerketa eta Arte Sorkuntza masterrean. Egonaldi laburrak egin ditu Università degli Studi di Modenan eta Reggio Emilian; Katholieke Pabo Zwolle-n (University of Applied Science Teacher Training Institute, Zwolle, Holanda); eta Hezkuntza eta Zientzia Unibertsitateko Goi Institutuan. Lisboan eta Urbinoko (Italia) Carlo Bo Ikasketa Unibertsitatean. Hezkuntzarekin lotutako Artearen eta Kultura Bisualaren esparruko ikertzailea da. Bere ildoak irakasteko eta ikasteko metodologietan oinarritzen dira, bai Haur Hezkuntzan, bai Oinarrizko Hezkuntzan eta Goi Mailako Hezkuntzan. Era berean, sormenaren eta estetikaren garapenak eremu horretan irakasteko eta ikasteko oinarri gisa duen garrantzia landu du, baita irudiak identitatearen eraikuntzan duen eragina ere, batez ere generoari dagokionez. Eusko Jaurlaritzako IkHezi talde kontsolidatuko kidea da, eta ikertzaile nagusia izan da 3 proiektutan.



Elena Lopez de Arana Prado



Ana Luisa López Vélez

UPV/EHU

Ana Luisa López Vélez Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko irakasle agregatua da. eta EHUKo S-L (Service-Learning) i3lab taldekidea da. Irakaskuntza- eta ikerketa-esparrua hezkuntza inklusiboa sustatzearekin lotuta dago, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etorkizuneko irakasleen prestakuntzaren bidez. Hezkuntzako Philosophy doktorea (PhD) da, School of Education, University of Manchester. Nazioartean, UNESCOk Latinoamerikarako eta Kariberako duen Hezkuntzako Eskualdeko Bulegoko aholkularia izan da hezkuntza inklusiboaren eta hezkuntza-berrikuntzaren arloan. Bere ikerketa-proiektuen artean hezkuntza inklusiboarekin eta Ikaskuntza-Zerbitzuarekin zerikusia dutenak nabarmendu behar dira. UPV/EHUKo IkHezi: Ikerketa Hezitzailea (Hezkuntza-ikerketa) ikerketa-taldeko kidea da, Eusko Jaurlaritzako talde finkatua (IT1703-22). Gaur egun, "Inklusioaren Irakaskuntza Partekatua: Kultura, Politika eta Hezkuntza Eraldaketarako Praktikak (CoN-Incluir)" proiektuko ikerketa-taldeko kidea da, eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren finantziatua da.



Nerea Permach Martin

UPV/EHU, Irakasle ikertzailea

Nerea Permach Martin Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakaslea da 2019tik, zehazki, Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailean. Lehen Hezkuntzako, Gizarte Hezkuntzako eta Pedagogiako Graduetan ematen ditu eskolak, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterrean ere. 2022an Gaitasun literarioa Lehen Hezkuntzan irakurleak trebatzeko bidean izenburuarekin tesia defendatu zuen. Bere ibilbide akademikoa etorkizuneko irakasleen eta hezitzaileen prestakuntzari loturiko ikerlerroari lotuta dago. Indexatuko aldizkari zientifikoetan, liburu kapituluetan eta dibulgazio-aldizkarietan argitaratu izan ditu bere lanak (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez). Hainbat kongresu internazionaletan ere parte hartu du eta liburu bat ere idatzi du: Ikastetxaren antolakuntza Euskal Autonomia Erkidegoan (UPV/EHU).



Isabel Margarita Ugalde Salas

Socióloga y Licenciada en Ciencias Sociales de la Pontificia Universidad Católica de Chile Licenciada en Educación y Profesora de Enseñanza Media de Historia y Ciencias Sociales Universidad Alberto Hurtado Chile Estudiante Máster en Pscondidáctica: Psicología de la educación y didácticas específicas Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Estudiante en práctica voluntarias en el grupo de investigación consolidado IkHezi GIC18/58. Actualmente Coordinadora de Comunidades de Aprendizaje y Gestión del Conocimiento de Fundación 99 - Chile.



Maria Teresa Vizcarra Morales

Gorputz Hezkuntzako Lizentziatua eta Hezkuntza Zientzietan Doktore. Eusko Jaurlaritzarako Gorputz Heziketako irakaslea izan da, Bigarren Hezkuntzan, Gasteizko Koldo Mitxelena B.H.I-n. Une honetan, IkHezi GIC18/58, ikerketa talde kontsolidatutako ikerlari nagusia da eta irakasle Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren didaktika Sailan, UPV/EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean Gasteizen. Bere ikerlanak honako gai hauekin egon dira lotuta: genero ikasketak, eskola kirola, gorputz adierazpena eta dramatizazioa eta ekimen pedagogikoak. Psikodidaktikako doktore programaren arduraduna da. Eta

kudeketa dela eta, hainbat postuetan egon da horien artean Lehenego Gasteizko Irakasle eskolako zuzendaria izan zen 6 urtez.



Arkaitz Salazar Maestu

Lehen Hezkuntzako Graduako ikaslea Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultatean eta Gorputz Hezkuntzako minorra eginda. IkHezi ikerketa taldeko Haizea Galarraraga zuzendari gisa izanik, Ikaskuntza-Zerbirtzuaren bidezko Gradu Amaierako Lana egiten ari da, GEU elkartearekin batera, Gasteizen euskararen erabilera sustatzeko eta komunitate euskalduna eta euskaltzalea uztartzeko asmoz, Videolit tailer baten bidez, non literatura, IKTak eta euskara elkartzen diren.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-06-25 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurkitza	-	61,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	61,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa